

## Gazteen Aurreku Txapelketa jokatuko da aurki Donostian

DONOSTIA

Gipuzkoako Gazteen Lehen Aurreku Txapelketa jokatuko da datorren asteko larunbatean, urtarrilak 23, arratsaldeko 18.00etan, Donostiako Trinitate enparantzan, Euskal Dantzarien Biltzarrek antolatutako Txapelketa honetan, 7tik 15 urtera bitarteko haur dantzari eta dantzari gazteek hartu ahal izango dute parte, Dantzarien Biltzarrean bertan izena eman eta gero, bi sail nagusitan banaturik: 7tik 11ra bitartekoak A sailean, eta 12tik 15era bitartekoak B sailean.

### BI SAILETAN BANATURIK

Saila osatzen duten 12 urtetik beherako dantzariak agurra eta esku aldatzeko soina (alpargata) dantzatu beharko dituzte. B saila osatzen duten 12tik gorako dantzariak, berriz, lan berbera eta gehigarri bat egin beharko dute, emanaldi luzexegoa beraz: agurra, esku aldatzeko soina (alpargata) eta aurkez-aurke (desafioa). Epaimahaiak honako ezaugarri hauek hartuko ditu kontuan dantzarien lana epaitzean: dantzaren jatortasuna, dantatzeko era, arintasuna eta erritmoa.

Dantzarien emanaldiak banakoak izango dira eta antolakuntzak izendatutako txistularien esku izango da soina. Guztira, sail bakoitzean 15 dantzari hartuko dute parte, gehienara jota ere, eta dantza talde bakoitzetik bi dantzari baino ezin hartuko dute parte.

Bestalde, dantzari guztiek zuriz jantzita egin beharko dute dantza.

# Angulemako Nazioarteko Komiki Jaialdia indartsu bere 20. edizioan

Margerin, Morris eta marrazkilari alemanak izango dira izarrak

**K**omikia maite Kdutenentzat urte honen hasierako topaleku nagusia berriro dator Angulema hirian hilabetearen bukaeran. Lau egunez animazio askok etorkizun bizia agertuko diote XX. mendeko arte berriari.

L. ETXEZAHARRETA / BAIONA

Angulemako Jaialdiaren zuzendari den Jean Paul Coumontek komikiaren hiriburua gora jartzen du: «Gizarteak inoiz baino beharrezkoago duen komikiak erreferentziazkoa den manifestaldi baten beharra du, planu guztietan gaiaren ingurukoak asetzeko. Anguleman komikiaren izpiritua dabil eta Saloi baten lorpena baldintzatzen duen alkimia guztiz berezian oinarritzko elementu salda dauka».

1974ean hasi zen Jaialdian Franquinek Sari Nagusia lortu zuen. Urte honetan Frantziako aldizkari batzuetan ia gaur izen handiak direnak agertu ziren: Mandryka, Bretecher, Gottlib, Bilal, Cabanes eta beste hainbat. Garai hori oroitarazteko, liburu-erakusketa-filmea agertuko da.

Erakusketa nagusiek Marge-



Angulemako Nazioarteko 20. Komiki Jaialdiaren logotipoa.

rin, Morris, Alemaniako komikia aipatuko dituzte. Margerin, jazko Sari Nagusiaren irabazlea, aurtengo epaimahaiaren lehendakari izango da. 41 urte ditu aurtun. Guztiz aipatua da Frantzian 'Lucien', 'Gilou' edo 'Ricky Banlieue' eginik.

Morrisek aurtun '20. urteu-

reneko Sari Berezia' eskuratuko du eta Margerin-ekin aurtengo Jaialdiaren aitabitxi izango da. 'Lucky Luke' cow boy famatuaren sortzailea da. Bere lagun testu idazlea Goscinny hil zen duela zenbait urte. Sortzez belgikarra da eta 66 libururen egilea da.

### KOMIKIGILE NAGUSIEN AGERTOKIA

Anguleman sari-tuen zerrendak agertzen ditu komikigintzaren izen nagusiak: Franquin (1974), Eisner (1975), Reiser (1978), Marijac (1979), Forest (1983), Bretecher (10. urteurrena), Tardi (1985), Bilal (1987), Hugo Pratt (15. urteurrena), Petillon (1989) edo Gottlib (1991). Beren liburuen sinatzera marrazkilari asko etorriko dira eta hauen ikustea bisitarien atsegina handietarik da.

'Germaniaques' hitz jokoaz izendatzen dute aurtun alemaniarrekin egindako erakusketa. Gutxi ezagunak dira Alemaniako komikigileak. Erakusketa bi zatitan dator: bata Matthias Schultheissen monografia eta bestea agerpen zabala. Lehendabizikoa da aipatuena dudarik gabe. Frantzian Glenat edo 'L'Echo des Savanes-ek' argitaratu dute. Hamazazpi artistaren lanak agertuko dira beste erakusketan.

Erakustazoka erraldoian beste erakusketa asko badira: eskola komikia, komunikaziorako komikia, erregioei buruzkoa, Babel dorrea, Ktöne taldea edo 'Famous women eating breakfast' (emakume famatuak askaltzen ari direla marraztuak). Italiako Lorenzo Mattottiren 300 obra ere agertuko dira.

Musikari toki berezia 'Francofolie' sailean egingo zaio. Erroxelan, aski hurbil beraz delarik Foulquier-en 'Francofolies' musika soila, lotura bat egingo du erakusketa honek.

## Gidoientzat sari berriak

L.E. / BAIONA

■ Gidoi onenaren egileen sari-tzeko sortu da aurtun Alph-Art Saria. Leclerc merkataritza zentro talde handiak babesten duen Saria da.

Bost sailetan banatuko dira sariok: Frantziako argitalpen onena, Atzerriko argitalpen onena, Gidoi onena, Umorezkoa, 'Bihotz kolpea'. Guziak iaz agertu lanei eskainiko zaizkie.

Beste Alph-Art sariak badira ere. Gazteriarena, Publikoarena, Eskoletakoa, Etorkizunezkoa, Fanzinea, Komunikazioarena. Promoziorako asmatuak diren hainbat gai berri lotzen dira: France Info Saria, Player One Saria, ilustratzaile gazte onenarena edo komiki kristau franko-fonoarena.

Bestalde, Alph-Art eskoletakoa 8. aldiko antolatzen da, Frantzia guztiko haurrei zuzendua.

## IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

31 x 10 mm

EGUN BAT 520pta/211  
ASTEBETE 2.600 pta/1041  
BI ASTE 4.400 pta/1801  
HILABETE 6.800 pta/2751

Zuberoako  
Santa Grazin  
**ETXE BAT  
ALOKATZEKO**

San Martin harria  
eski-estaziotik gertu.  
Erreserba egiteko dei  
gauetan: (07.33) 59.28.55.49

31 x 33ko  
BI MODULO

EGUN BAT 4.200 pta/1681  
ASTEBETE 20.400 pta/8321  
BI ASTE 36.000 pta/1.4401  
HILABETE 50.000 pta/2.2001

**UNDERGROUND  
ENGLISH**

GAZTEENTZAT BEREZIKI !  
(FP, REN, 3. BUP, COU)

Jar ezazu ikasten duzun  
ingeleza mihiaren puntan...  
Ongi pasaz.

Arratsaldeko 5.15etan astean bitan.  
Bestelako ikastaro eta  
mailetaz galdeguzu !

Elkano, 8 behea - Donostia - 42 06 31

31 x 15 mm

EGUN BAT 1.040 pta/421.  
ASTEBETE 5.100 pta/2081.  
BI ASTE 9.000 pta/3601.

31 x 33 mm

31x33  
MODULO

EGUN BAT 2.100 pta/841  
ASTEBETE 10.200 pta/4161  
BI ASTE 18.000 pta/7201  
HILABETE 25.000 pta/1.0101

## LABURREAN

### JAZZAK omenaldi berezia eskaini zion Gillespieri

Jazz munduko musikari eta zaleek omenaldi berezia eskaini zioten astearte gauean New Yorken duela astebete zendu zen Dizzy Gillespie tronpeta jole ezagunari. Ehundaka zale hurbildu zen Saint-John The Divine elizara Gillespieri agurra emateko asmotan. Duke Ellington eta Alvin Aileyren aldeko omenaldiak egin zituzten lehen ere eliza berean ●

### CARLES MIRA zuzendaria hil egin da

Carles Mira zinema zuzendari valentziarra atzo goizean hil zen Valentziako ospitale batean biriketako gaitzak jota. Carles Mira 1947. urtean jaio zen Valentzian eta Zientzia Politikoak ikasi zituen Madrilén Jose Luis Gomez zuzendariarekin zenbait antzerki ikuskaritan lan egin aurretik. Bere filmerik ezagunenak 'Con el culo al aire', 'Jalea real', 'Que nos quiten lo bailao' eta 'Daniya, jardín del Harén' dira ●

### JOHN GOTTI komiki bateko protagonista izango da

Gambino familia mafiosoko buru den John Gotti komiki bateko protagonista izango da laster batean. Eclipse Enterprises komikiak argitaratzen dituen enpresak otsailean jarriko omen ditu salgai gaur egun kartzelan betirako atxilotuta dagoen mafiosoaren gainean egindako tirak. 'True Crimen Comics' izena eramango du estreineko zenbakiak ●

### CHAPLIN «aita zoragarria» izan zen alabaren ustez

Charles Chaplin «aita arrunta, baina zoragarria» izan zela aitortu du Anny bere alabak Maurice Bejarten balet konpainian parte hartu aurretik. «Nere aitari egin dakioken omenaldirik onena bere filmeak ikustea da», esan zuen Chaplinen alabak. Annyk 32 urte ditu eta narratzaile lana beteko du aitari omenaldi gisa Bejartek prestatutako 'Mister C' ikuskarian ●